

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, MUSKIZKO UDALAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Muskizko Udalaren 2008ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileriari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak bitarteko 4 funtzionario eta aldi baterako lan kontratupeko langile bat kontratatzeke erabilitako prozeduran ez dela publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatu; ez eta Erakunde Autonomoek 9 langile kontratatzeke erabilitakoan ere, iraupen mugatuko lan kontratuekin zerbitzua eman dutenak.

Kontratazioaren atalean Udalak adierazi du San Martin enpresa parkerako irispidea eraikitzeke lanen kudeaketa (1.620 mila euroko aurrekontua duena), Muskizko SL 1-San Martin industri sektoreko Kooperaziorako Elkarre Administrazioari agindu diola; honek obrak zuzenean esleitu direla esan nahi du, administrazioan buru egiten duten publizitate eta lehia printzipioak urratuz.

Atal honetan bertan, HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: 198 mila euroko gastuak egin dira esleipen prozedurak saihestuta eta gazteria eta gazte-zentroaren programazio zerbitzuko kontratua aldatu da eta ondorioz, esleipen zenbatekoa % 61 igo da; honek kontratuaren xedea nabarmen aldatzea dakar.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 753 mila euroan gehitu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2006-2008 aldian sortutako aurrezki garbiak egin diren ia inbertsio guztiak finantzatu dituela jakinarazi da eta Diruzaintza Geldikinak % 23 egin du gora; gainera, ez du zorpetzerik. Aurreko guztia eta 2009ko ekitaldian emandako obra lizentzien ondorioz EIOZ kontzeptuan eskuratuko dituen diru-sarrerak aintzat hartuta, Udalak 2006-2008 aldian izan dituenak baino inbertsio kopuru handiagoak izan ditzakeela ondorioztatzen da.